

Cedric Price arkitektoaren ondare paradoxikoa



Ula lurretagoiena °

Aldiri. 2013, IV, 16, 12-13, ISSN 1889-7185

Jasotze-data: 2013-08-01 / Onarpen-data: 2013-10-04

LABURPENA: Cedric Price arkitekto britaniarraren proposamen berritzaileak burutu ez ziren arren, maila teorikoan jasotako ideia abstraktuak ondare arkitektoniko baliosutzat har daitezke. Priceren ondare arkitektoniko ez-fisikoak arkitektura ulertzeko era pertsonala laburbiltzen du. Hau da, arkitektura une oro aldatzen den errealtateari erantzun eraldatzailea emateko tresna politiko gisa ulertaraztea, espiritu kritikoren adierazle.

GAKO-HITZAK: Cedric Price, bizitza-ingurumena, aurreikusitako diseinua, behin-behinekotasuna

ABSTRACT: Although the British architect Cedric Price did not build his most advanced proposals, his architectural ideas are acknowledged as leaving a valuable legacy. Price's un-built architectural legacy shows a very personal way of understanding architecture and is important to understand his idea of architecture as a buildable realisation of political ideas that contain implied criticism and challenges.

KEY WORDS: Cedric Price, life-conditioning, anticipatory design, impermanence

Etorkizunaren ameslari eta aurrekaria

Cedric Pricek eraikin kopuru eskasa errealtatera eraman zituen arren, pertsonaia esanguratsua dugu arkitektura munduan. Britainia Handian eta Italian arkitektura utopikoa sutsuki ekotzi zutenen belaunaldia jai zen 60ko hamarkadan. Priceren garaikide izandako *Archigram*, *Archizoom*, *Superstudio*, *Situazio-nistak* besteak beste, hiriaren garapen-fenomenoaren hasieran teknologia berrien sorrerak bestelako bizimodu bat amesteko aukera eskaintzen zuelako ikuspegi berritzaileak aurkeztu zituzten. Pricek, aldiz, talde horiek proposatutako etorkizuneko irudikapen iradokitzaileez haratago, arkitekturaren funtzio eraldatzailearen ideia aurrerakoiak landu zituen, eraikigarriak izateko zehaztasun maila handiko proiektuak garatuz.

Arkitektura eta arkitektoaren papera gizartearen *ber-asmatzen* ari den gure garai honetan, non objektu arkitektonikoa edukiz hustu den aroa igaro ostean arkitekturaren funtzio sozialak aldarrikatzen diren, non diziplina arteko elkarlanaren apustua egiten den arkitekto *abalguztidunaren* aurrean, non eraikinen erabiltzailea aktibo eta parte-hartzailearen aldeko predikua egiten den (1), Priceren esanek egunerokotasun itzela hartu dute. Arkitekturaren balioztatzea adreilutik ideietara salto egiten ari dela ematen du eta Pricek aurkeztutako proposamenak ideologia horren aurrekari eta ameslari direla baieztatzeko.

Pricek arkitekturari logika berri bat ezarri nahi izan zion, *life-conditioning* (Price, 1966) kontzeptupean laburbiltzen dena. Bizitza «inoiz bukatzen ez den gertakizunen jarioa» bezala ulertuta eta beraz gizartearen etengabeko izaera aldakorra onartuz —Zygmunt Baumanek 1999. urtean definitutako modernitatearen likidotasun ideari aurrea hartuz— diseinu espazialaren helburua bizitzarako ingurumen-baldintza egokiak eskaintzean zetzan Priceren ustez. Bide horretatik, arkitekturak tramankulu izan nahi zuen ziurgabetasun-kon-

dizioak ahalbidetzeko. Erabileren programa edo funtzioak gidalerrotzat hartu beharrean, jazoerak iradokitzeko espazioak taxutzeaz ari zen Price (hortik bere arkitektura *anti-architect* eta *anti-building* deitu izana). Espazioa *nolako* den ez da ikuspegi honen bidez funtsezkoena, espazioak susta ditzakeen ekintza aukera zabala baizik (2).

Priceren proposamenek funtzionalitate eta estiloen eztaba-datik ihesi egin zuten, gai horiek iraunkorrak ez izateagatik balio gabetzen zituelako. Aitzitik, ahaleginak gizartearen erronkei erantzun bat ematean kontzentratu zituen —hortik dimentsio politikoaz mintzatzea— eta, beraz, arkitekturaren gai klasikoak gaingaiturik arkitektura diziplina arteko jardura bilakatu zen ezinbestean. 60ko hamarkadan hezkuntza eta denbora librearen etorkizuneko gakoak izango zirela aurreikusitua zuen Pricek. Paradigma berri horiek ez dira, ostera, Priceren ikuspegitik abiatu, ekonomia neoliberalak bereak egin baititu (unibertsitateak enpresa bilakatu dira eta aisialdia zerbitzu-gizartearen funtsezko kontzeptua da).

Fun Palacetik Sendaiko Mediatekara

Arkitektura-legatuaren balioa nolabait neurtu nahiko bagenu, haren influentzia-esparrua aztertuz kuantifika genezake.


Priceren eraiki gabeko proposamenek ekarritako eraikin-genealogia luze eta adierazgarriak balio beza bere ondarea balioztatzeko. *Fun Palace* proiektuak (1961-65) haustura inportantea eragin zuen bere garaian, baina eragin-eremua gaur egun arte iritsi zaigu eta gerora eraiki diren hainbat proposamenen tipologia eta teorien aurrekaritzat jo dezakegu (3).

Fun Palace aisialdira zuzenduriko ekipamendu publikoa da, Pricek Joan Littlewood teatrogilearekin batera administrazio londrestarraren aurrean defendatu zuena. Proposamenaren berrikuntza nagusia kultura eta aisialdia ulertzeko moduan zetzan, indibiduoaren jakinduria garatzeko bide bezala kon-

(1) SORIANO, F. (2004): *Sin...tesis*. Gustavo Gili, Barcelona.

(2) *It is not important how it is, but what it does* (Mathews, 2007: 210)

(3) Aldi berean. Walter Besant-en *People's Palace* eta Michael Webb-en *Sin Centre* Fun Palaceren inspirazio-iturriak izan ziren, egileek aitortu bezala (Mathews, 2007).



Cedric Priceren proposamen-eskemaren adibide bat: Frankfurt Unibertsitaterako proiektua.

prentua. Teknologiaren aro berria lan egitera dedikaturiko denbora zeharo murriztuko zelakoan (horretan ere ez zuen bada Pricek asmatu), aisialdia esangura berriez hornitu behar zela ulertu eta denbora librea dedikaturiko tipologia arkitektoniko berria proposatu zuten *Fun Palace*ren bitartez. Ekintza ludiko eta kulturalak jasotzeko azpiegitura aldakor erraldoia proiektatu zen. Programaren indeterminazioa erabiltzailean unean uneko gertakizunen sortzaile eta kontsumitzaile egiteko pentsatua zegoen, garaiko ordenagailuen programazio-teknologia bide (lehen aldiz teknologia espazioaren diseinuan integratzen da, Interneten kontzeptu aurrekari argia). Erabiltzaileek definituko zuten eraikinaren behin-behineko forma etengabe aldatzeko pentsatua. Pentsamolde horri *anticipatory design* deitu zion Pricek.

Aisialdiaren demokratizazioa erdiesteko *free space* honen eredu eraikia Rogers eta Pianoren Parisko *Beaubourg* kultur eta arte-zentroa dugu (1972-1975), kulturaren instituzionalizatzea dela-eta edukiontzi flexiblearen porrota agerian jarri zuena. Programarik gabeko arkitekturaren ildotik, Koolhaas eta Tschumik teorizazio eta proposamen eraikiak egin dituzte (La Villette proiektua, *Bigness* kontzeptua eta hortik sortutako proiektuak, Seattle-go liburutegia esaterako). Ibilbide teoriko-praktiko honen azken emaitza Japonian da, Toyo Itoren Sendaiko Mediatekan.

Sendaiko Mediateka programa zehatzik gabeko espazio flexible eta generiko bat da altuera desberdinetako solairutan garatzen dena —prozesu parte-hartzaile eraginkor baten emaitzatik ateratako ondorioa—. Programaren definizio eza, ingurumen teknologiko eta espazialarekin batera, erabiltzaile den paisaia iradokitzailea sorrarazi da erabiltzaileari espazioa interpretatu eta berea egiteko aukera luzatuz. Horrela, espontaneoki gertakizun oparoak jasotzeko gaitasuna duen eraikina erdietsi da, Pricek hasitako ideologiaren adibide heldu eta arrakastatsua da, beraz, Itoren Mediateka.

Ondarearen esanahiaz

Arkitektura maila teorikoan proposatzen denean eta are gehiago proposamena utopikotzat jotzen baldin bada, haren garrantzia ezbaian jartzen da maiz. Ideia bat praktikan jartzeak ekartzen dituen mugak direla, denboraren igarotzean gertatzen diren ezbeharrak direla, arkitektura-ideiak gutxietsiak dira. Batzuek diote Priceren ideien izaera erradikala errealiteraz eraman izan balitz, proposamenaren helburu sozialak indargabetuko ziratekeela. Priceren lana ordea ez da maila fisikoan aztertu behar, arkitekturaren izaera aldakorra aldarrikatu baitzuen arkitekturaren irudi ez-bukatuaren bidez, espazioaren eragite-gaitasuna espazioaren estiloaren gain ezarritik. Arkitekturak jaso beharreko funtzioei *kapa* berri bat gaineratu zion, antolaketa espazialaren efektu eraldatzailean eragin eta sustatzearena, alegia.

Priceren arkitektura maila abstraktuan eta ekintza politiko gisa landu izateagatik, ideiak milaka irakurketa posible jaso ditzakete denboran zehar, nolabait esatearren, ideien aplikagarritasuna ez da sekula agortuko. Hain zuzen ere, Priceren arkitekturaren funtsa erabiltzailearen interpretazioari euskarri fisikoa ematea da, arkitektura ondare bezala ulertuz eta interpretazio-aukera amaigabe horrek arkitekturaren formari etengabeko aldaketa ekarriko liokeela suposatuz. Horra hor paradoxa, behin-behinekotasunaren aldeko arkitektoak betirako den ondare transzendentalia izango baitu.

Bibliografia

- García-Germán, J. (2012): *Estrategias operativas en arquitectura. Técnicas de proyecto de Price a Koolhaas*, Nobuko, Buenos Aires.
 Price, C. (2003): *The Square Book*, Wiley-Academy, Chichester.
 Mathews, S. (2007): *From Agit-Prop to Free Space: The Architecture of Cedric Price*, Black Dog Publishing, Londres.
 Vittorio Aureli, P. (2011): "Labor and Architecture: Revisiting Cedric Price's Potteries Thinkbelt", *log*, 23, 2011.

